



1. Abotik belarrira

BULARRETIK MINTZORA Kanpainaren baitan Itziar Zubizarretaren [SASI GUZTIEN GAINETIK](#) bigarren liburu-CDa argitara eman da 2011an, lehendik zegoenaren jarraipen moduan.

Liburu-disko hau euskal tradizioak sortu dituen ipuin, kanta eta jolas bilduma bat da; hauek berridatzi, moldatu eta egokitu egin direlarik argitara eman baino lehen. Helduen begi belarrietatik pasa behar dute, 5 urtetik gorako neska-mutilen belarrietara iritsi baino lehenago, beti ere ahozko transmisioaren garrantzia ez ahanzteko.

Liburuen edukiez gozatzen hasteko ikasi kantu hau: [Kanika txikia](#).

2. Urkabustaiz ere egitasmoan

2011ko udaberrian Urkabustaizen hasi dira Bularretik Mintzora egitasmoaren lehenengo saioak. Zuia Koadrilako udalerrri honetan dagoeneko irakasleek jaso dute lehenengo prestakuntza saioak, eta ekainean Pello Añorgaren ikastaroa izango dute gurasoei zuzendua.

Ekintzak Izarrako Kultur Etxean egiten dira, eta Izarrako Liburutegian ekainean izango dira [maletak](#) etxera maileguan eramateko prest.

3. Egitasmoaren martxa: Irakurketa Klubak

BULARRETIK MINTZORA kanpainaren baitan [Irakurketa Klubak](#) izeneko saioak burutzen ditugu. Irakurketa Klubetan gurasoek eta haurrek denbora bat konpartitzen dute, hilean behingo saioetan, Galtzagorri Elkarteko profesionalek gidaturik, irakurketa sustatzeko ekimen batzuen inguruan.

Saio hauetan, gurasoek eta haurrek elkarrekin zenbait ekintzatan parte hartzen dute: hala nola, irakurketa ozenak, liburuen aurkezpenak, irakurritako liburuei buruzko komentario eta gomendioak, eta hainbat ekimen lasai liburuak ezagutzuz gozatzeko, eta idatzizko literaturaren curriculum bat pixkanaka osatzen hasteko.

Hemen Oñatiko guraso eta haur batzuk harrapatu ditugu Galtzagorriko dinamizatzaile batekin gustura [poesia bat lantzen](#).

4. Ongi pasatzeko: hau ez da ipuin bat

Oraingoan Orixe Ikastolan izan gara Donostian. Liburu polit bat eraman dugu bertan ikusteko, eta aurretik hipotesiak azaldu dizkiegu haurrei: honako hau ipuin bat al da? Zalantza pixka batzuen ondoren, argi esan dute haurrek: [zenbakien liburua da, azalean zenbaki asko daudelako](#).

Květa Pacovská-ren liburuaz gozatu eta hiztegi aproposa erabiltzen hasi, literatur curriculumera eraikitzen hasteko. Liburu guztietan ez daude ipuinak... Liburu honek jolasa eta zenbakiak lotzen ditu.

Květa Pacovská (2010) *Uno, cinco, muchos*. Kókinos argitaletxea. ISBN 978-84-92750-34-4.